

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 230.000 euro emango ditu unibertsitateko ikasleen nazioarteko mugikortasunerako laguntzatan

Eskabideak aurkezteko epea abuztuaren 9an, ostegunean, hasiko da eta irailaren 30ean amaituko da

Miércoles, 08 de agosto de 2012

Nafarroako Gobernuak 230.000 euroko laguntzak emango ditu unibertsitateko ikasleen nazioarteko mugikortasunerako laguntzatan 2012-2013 ikasturtean. Espainiako unibertsitateek sustatutako nazioarteko mugikortasuneko programa desberdinetan, horien artean, Erasmus programan, parte hartuko duten ikasleek lortu ahal izango dituzten laguntza osagarriak dira.

[45E/2012 Ebazpenak](#) dioenaren arabera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) gaur argitaratu dena, behar bezala justifikatutako egonaldiko hilabete bakoitzeko 90 euro emango dira, gutxienez, hiru hilabetez eta, gehienez, bederatzita hilabetez. Ordainketa egonaldia amaitzen denean egingo da espediente akademikoaren arabera.

Eskabideak aurkezteko epea abuztuaren 9an, ostegunean, hasiko da eta irailaren 30ean amaituko da. Interesatuta daudenek eskabidearekin batera, zenbateko hori ordaintzeko kontu-zenbakia, NANaren fotokopia, erroldatze- edo bizileku-agiria, nazioarteko mugikortasuneko programa baten onuradun direla egiaztatzen duen agiria eta 2011-2012 ikasturteko notak aurkeztu beharko dituzte Nafarroako Gobernuko erregistro desberdinetan edo Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legean aurreikusitako edozein bulegotan.

Eskatzaileek Espainiako unibertsitateen batean (ez dira sartuko arte eta musikako goi-mailako ikasketak) matrikulatuta egon behar dute, unibertsitateen arteko nazioarteko mugikortasuneko programa batean hartu behar dute parte eta aurreko deialdietan ez dute laguntza hori eskuratuta eduki behar. Gainera, Nafarrak izan behar dute edo, gutxienez, berehalako aurreko bi urtez egon behar dute Nafarroan erroldatuta edota Foru Komunitatean, gutxienez, bi urte daramatzatela bizitzen egiaztatu behar dute (Nafarroako unibertsitateetan matrikulatutako ikasleentzako soilik).

Behin egonaldia amaitutakoan, onuradunek agiri bat, xede-unibertsitateak behar bezala beteta eta zigitatuta, aurkeztu behar dute; hori ezinbesteko baldintza izango da aitortutako laguntza ordain dakien.